

XXI.eko faxismoari aurre egiteko ezker jasangarria

Klimaren beroketaz eta energiaren krisiaz komunikabideetatik hedatzen diren mezu katastrofisten eta herritarren eguneroko errutinen artean sekulako leizea dago. Gutxitan irakurtzen dira biak uztartuko dituzten diskurtso politikoak. Horietako bat da Jorge Riechmann-ek darabilena.

JORGE RIECHMANN madrildarra gauza asko da aldi berean bere 45 urteetan. Poesian gatzelaniaz egin dituen lanek izena eman diote. Argitaratutako itzulpenek ere bai. Matematiketan lizentziatu ondoren, filosofia ikasi zuen UNED bidez, gero literatura alemana. Zientzia politikoetan doktore da, Alemaniako Berdeez eginik tesia. Bartzelonako unibertsitatean irakasten du, Greenpeaceko kide da, *Mientras tanto* aldizkariko erredaktore... eta CCOO sindikatuak sortutako ISTAS (Osasun, Ingurumen eta Lanerako Institutu Sindikala, euskaraz) fundazioan ere ari da.

Riechmannek berrikitan hitzaldi interesgarria eman du izenburu honekin: *La crisis energética: algunas consideraciones políticas*. Interneten irakur daiteke PDF formatuan Riechmannek bere solasa hornitzeko prestatutako *Power-Pointa*. Agian irakurleari hura osorik ezagutzeko irrika piztuko dio ondoren egingo dugun laborpenak.

Krisi handi eta hirukoitz baten arian gaude, Riechmannen aburuz. Bere osagaiak dira: klimaren berotzea, petrolio merkearen amaia eta ekosistema eta baliabide naturalen sunsitzeta (espezioen akabera masiboa). Gizarte eredia krisian omen dago, bere sustraian daukan energi eredia krisian dagoelako. Erregai fosiletan oinarritzen da gizarte industrialia, munduan erabilitako energiaren %85

horiek erretzetik sortzen da, eta orain urritzen hasi dela begi-bistakoa da.

Klima berotzen ari dela ez du dagoeneko inork ukatzen. Gero eta onartuagoa dagoen moduan *Peak Oil* kontzeptua; batzuek diote 2010ean suertatuko dela eta Total multinazionalako lehendakariak esan du 2020an, baina inork ez du ukatzen erabilgarri daukagun petrolio guztiaren erdia kontsumitua izango dugun eguna gainera dela. Hortik aurrera... mundua aro ezberdin batean murgilduko da.

Gizarte industrialetan oparotasunezko urteak bukatu eta mundu osoan oro urri izango denean, ondoen bizi direnen erreakzio naturala gainerako gehiengoaren gaineko menperatze estrategiak sendotzea izango dela aurreikusten du Riechmannek. Bere iritziak azken urteotan azterketa mamitsuak publikatu dituzten autoreetan oinarritu ditu. Horien artean garrantzia handia eman dio Carl Amery-ri.

Ameryk idatzi du *Auschwitz, XXI. mendea basi da? Hitler aitzindari* liburua, gatzelaniaz ere irakur daitekeena. Ameryren ustez, Hitler –askok bestela uste arren– ez zen historian gertatutako istripua izan, alderantziz, aitzindaria ere izan zen. Giza espezieak mundu mugatuan iraun ahal izateko zein baldintza bete behar dituen galdarari, programa asasinorekin erantzun zion aitzindaria, alegia. Goi mai-

Erretratu txikikoa Jorge Riechmann Fernandez da, poeta, filosofo eta irakaslea. Hamazortzi poesia liburu plazaratu ditu eta beste hainbeste entsegu ekologia, politika eta mugimendu sozialez, eta gainera, bestelako itzulpenak ere bai. Orriotan laburtu den mintzaldia Kanariar Uharteetan eman zuen berriki, eta *Crisis Energética* webguneari esker zabaldu da Interneten. Argazki handian ikus daiteke Indian –eta oro har Asian– hain zabaldua dauden *rickshaw* famatuak: atoiari bidaiariak eramateko gurdiz hornitutako bizikleta. Giza energia errez mugitzen da. Aspalditik dago demostratuta ezin izango dela Mendebaldeko bizimodua munduko herritar guztien artera zabaldu, eta energia urritzeak gehi klimaren beroketarako aditu askoren ustez eragingo duten krisi orokorrak hautu oso garrantzizkoak egitera behartuko ditu Mendebaldeko herritarrak.

lako herriei boterea eta ongizatea bermatu nahi zien, horretarako behe mailakoak esklabotu eta ustiatuz.

Orain Europa eta Ipar Amerikak daukatena bezalako bizimodua mundu osoan gozatzea ezinezkoa dela demostratzen denean, berriro indartuko ote da Hitlerrenaren antzeko alternatiba? Ameryk duarrik ez du: “Pentsatu behar ote dugu Mendebaldeko eliteek uko egingo dietela beren historiako lorpen funtsezkoiei, hala nola giza eskubideei edo gutxiengoekiko babesari, beren zibilizazioaren eta bizi mailaren mesedetan? Nik diot argi eta garbi, baietz (...) Mila modutan ari da jadanik gertatzen, eta onarpena beti salerosketa moduan egiten da: libertatea eta duintasunaren truke, segurtasuna”.

Eguneroko luxu negoziatzekin

Oharkabea, diosku Riechmannek, ohitu egin gara Hitlerrek sina zitzakeen astakeriak entzun eta irakurtzera. Munduko herri eta jendeen arteko harreman bidegabekoak defendatzen dituzten iritzi askotan daude disimuluz estalita. Faxismorako joerak sekulako indarra har dezake klimaren beroketarako eta petrolioaren gailurrak sortuko duten emergentzia egoeran.

Hona Riechmannen galdera: “Gizarte aberatsek ez ote dute nahiegoko nazi bihurtzea, ‘bizi kalitatea’ dela uste duten gehiegizko kontsu-



moari uko egin baino lehen?”. Tentaldia oso izango da gogorra. Zeren eta alde batetik, dagoeneko segurua da munduak ezin diela bere biztanle guztiei bermatu gaur Mendebaldekoek daukaten bizimodua. Bestetik, Mendebaldeko herritarrak ohitu egin dira eta ezin ukatuzkotzat dauzkate luxu hutsa diren gauza asko. Hirugarrenik, mota askotako diskurtso autoritarioak daude zabaldua edonon.

Horren alternatiba badago, baina gogorra izango da. Energia fosilen menpekotasunetik ateratzea eskatzen du: 1) energi kontsumoa urritzea, 2) energia modu efikazagoan erabiltzea, eta 3) energia berriztagarriak oso azkar ugaritzea. Horek aldaketa ekonomiko, sozial eta teknologiko izugarria dakar. “Aldaketa kosta egiten da

beti –dio Riechmannek–, baina hobera aldatzerakoan ere”. Ziurrenik horregatik gertatzen da paradoxa hau ikerlari poetak azpimarratzen duena: “Badirudi garapen jasangarria lortzeko egin beharreko guztia gaudela prest egiteko... salbu eta garapen jasangarria lortzeko beharrezkoa den horixe: produzitzeko eta kontsumitzeko modua aldatzea”.

Gehiegizko energi kontsumoaren alternatibatzat automugatzeta –*autolimitación*– proposatzen du. Ideia horretaz gehiago eta zehatzago idatzia da Riechmann, hala nola bere liburu honetan: *Biomimesis. Ensayos sobre imitación de la naturaleza. Ecosocialismo y autocontención*.

Proposamen horrek halako kristausaina edo zintzotasunerako dei etiko-

aren kutsua edukiko du askorentzat, zehazki Euskal Herrian, non ezkerreko izan ala eskuineko, kontsumoari dagokionez ohitura berdinak daukaten herritarrek. Militanteak barne.

Riechmannen ustez, une honetan agintariak klimaren beroketaren eta petrolioaren urritzearen aurrean, halako erdibide bat proposatzen dute, eta hori alderatzen du Hitlerren aurrean gerra saihestu zitekeelakoan Mendebaldeko potentziek egin zuten “bakeratze” estrategiarekin, Municheko itun famatuaren ahaleginarekin. Bere iritzian, munduko beste ekologista eta ekosozialista askorenean bezala, delako garapen jasangarriaren izenean egiten diren maniobra horiek denbora galtzeko baizik ez dira.

Salvar el planeta idatzi zuen Lester R. Brown-i zita hau ostu dio Riechmannek: “Gerra denborek eskatzen duten abiadan berregituratu behar dugu ekonomia. Eta denbora agortzen ari zaigu”. Gerran bezala, halako emergentzia egoeran berplanteatu behar dira produzitu, kontsumitu, saldu eta erosi, eraiki, bizi eta bidaiatzeko erak, baita dibertitzekoak ere.

Hori gogorra denez, Mendebaldeko herritarrarentzako faxismoa tentaldi erakargarria izan daiteke, eta ekofaxismoz bezitaturik badator gehiago. Honela idatzi zuen Riechmannek aspaldi *Poesía practicable* liburuan: “Gurasoek irabazitako abantailari uko egiten ez dakienak, jadanik bereganatu du borrero ofizioa” ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



K A L I T A T E A

Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hersani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624